

Steinbecki eta Beauvoirri obra bana berrargitaratu diete

Asun Garikanok 'Zeruko belardiak' euskaratu zuen, eta Oier Alonsok, berriz, 'Besteen odola', eta, orain, bi lanak berreskuratu dituzte Urrezko Biblioteka bildumarako

Ainhoa Sarasola

Asun Garikanok 1994an euskaratu zuen John Steinbecken *Zeruko belardiak* narrazio bilduma. Oier Alonsok, berriz, 2001ean ekarri zuen euskarara Simone de Beauvoirren *Besteen odola* nobela. Bi itzulpenak Literatura Unibertsala bilduman plazaratu zituzten bere garaian. Orain, lanok berreskuratu, berrikusi, eguneratu, eta berriro argitaratu dituzte, Urrezko Biblioteka bilduman.

Zeruko belardiak 1932an eman zuen John Steinbeckek (Salinas, Kalifornia, AEB, 1902–New York, 1968). Haren bigarren lana izan zen, eta, beraz, «gerora halako ospea ekarri zioten *Perla*, *Tortilla flat*, *Edengo ekialdean*, *Suminaren mahatsak*, *Saguak eta gizonak*, eta horien guztien aitzindaria», Asun Garikanok gogorarazi duenez. Idazleari euskarara ekarritako bosgarren lana ere bada.

Hamar ipuinek osatzen dute liburua. Garikano: «Pieza bakoitza autonomoa da, besteak irakurri gabe ere zentzu osoa dute. Denak batera irakurrita, ikusiko dugu nola doazen katramilatzen herri txiki bateko nekazari giroko komunitate bateko biztanleen bizitza eta patuak». Lekuak lotzen ditu istorioak, Kaliforniako Salinas eta Monterrey artean dagoen Zeruko Belardiak herrian gertatzen baitira. «Hangoa zen Steinbeck, eta, beraz, bere beste liburu askotan bezala, gertukoa zaion munduaz ari zaigu liburu honean. Paisaia bati eta historia bati lotutako idazlea da; txoko horretatik idazten du unibertsaltzat hartuko den eta mundu osoko irakurleengana iritsiko den liburu hau, eta beste asko».

XX. mendearen hasiera da liburua. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren industrializazioa gertatzen ari da, eta gazteak landa eremuetatik hirira doaz. «Gizartea antolatzeko modu baten desgertzea dakar horrek, lurrarekiko eta jaiotetxearekiko lotura eten, familia sakabanatu, eta ordura arteko nekazari komunitate sendo eta kohesionatuak kolokan jartzea», gogorarazi du itzultzaileak. Euskal irakurleari «oso ezagu-



John Steinbeck eta Simone de Beauvoir idazleak, artxiboko irudi banatan. BERRIA

na» egingo zaizkion gai horiek daude «atzeko planoan»; eta, «herri txiki bateko komunitate estuan gertatzen diren tentsioak», berriz, aurrekoan. Izan ere, familia berri bat joango da hara bitziera, bertakoen ustez zorte txarra dakarren etxalde batera; familiarentzat sineskeriak baino ez dira horiek, baina, nahi gabe, kaltea eragiten dute inguruan. «Behin eta berriro errepikatzen da patro hori: asmo oneko jendearen ekin-tzek zoritxarra eraiten dute inguruan». Irakurlea jabetuz joango da herri hori ez dela «hain leku zerutiarra». Idazleak pertsonaien barruan sartzeko duen gaitasuna goraiatu du itzultzaileak.

Duela 27 urteko itzulpena berriaz hartzean, Garikanok erabaki zuen testua sakon berrirakurtzea, eta halakoak dira egin dizkion aldaketak ere. «Esango nuke, beste bertsio bat baino gehiago, itzulpen berri bat dela; ez dakit esalderen bat gelditu den ukitu gabe».

Bestea literaturan

Simone de Beauvoirrek (Paris, 1908–1986) 1945ean plazaratu zuen *Besteen odola*, Oier Alonsoren hitzetan «nobela entretenigarria». Bigarren Mundu Gerra-

ren aurreko giroa eta Frantziako erresistentzia azaltzen ditu bereziki. «Historiaz jarduten du eta besteen gaia jorratzen du». Itzultzaileak azaldu du existentzialismoan besteen gaia «oso inportantea» izan zela, eta hainbat idazlek landu zutela: besteak beste, Jean-Paul Sartrek hainbatetan hitz egin zuen auziaz, baita Albert Camusek ere *Arrotza* nobelan (1942). «Beauvoirrek solidaritateaz hitz egiten digu, eta besteen ardura zein den kontatu». Alonsoren esanetan, Bigarren Mundu Gerraren ostean idazle ugari «oso jota» gelditu ziren «besteek halako krimenak» egin ahal izan zituztela pentsatzean. «Beauvorrren ikuspuntua nahiko autobiografikoa izan ahal da, zeren nobelako protagonistarena ere bada markatutako ildoetatik ateratzen den gazte burges batena, beregandik espero dena egin ez duen batena. Hortik doa bestearren gaia». Idazleak Fedor Dostoievskiren aipu bat hautatu zuen liburua zabalatzeko: «Norberak guztiaren ardura du guztien aurrean».

Duela bi hamarkada plazaratutako itzulpenaren hitzaurrean, «feminismoa ez zegoela batere modan» idatzi zuen Alonsok, eta


orain, haren ustez, «oso bestelako egoera batean gaude». Hitzaurrea berriro dio argitalpenari, eta Elkar argitaletxeak eguneratu du itzulpena. Xabier Mendiguren editorearen ustez ere, bestea da liburuko gai nagusietako bat, eta, harekin batera, «kompromisoa eta kontzientziaren ausikiak».

Azken biak, oraingoz

2010ean jarri zen martxan Urrezko Biblioteka egitasmoa, EIZIE elkarteke lehendakari Itziar Diaz de Ultzurrunek gogorarazi duenez. «Ikusita Literatura Unibertsala bildumako lehen ehun aleak ezin zirela paperean eskuratu, abagunea ikusi zen batzuk behintzat berri argitaratu, paperean eman eta euskal irakurleengana eskura jartzeko». Horietatik hogeita hamar hau-tatu ziren Urrezko Biblioteka osatzen hasteko; Elkar argitaletxeari eman zitzaion plazaratzeko lana, eta Eusko Jaurlaritzak lagunduta eraman dute aurrera. Hogeita hamar liburuak dira *Zeruko belardiak* eta *Besteen odola*. «Orain, EIZIEn gogoeta egin beharko dugu segida nola eman ikusteko».

Hiru proiektu berri Itsulapikoa diru bilketari esker

KULTURGINTZA • Itsulapikoa plataformak hiru kultur proiektuarentzako diru bilketan launa mila euro bildu ditu, eta fikziozko serie baten kapitulu bat, lo-kanta erotiko osatutako disko bat eta biolontxelarako musika liburu bat aurkeztuko ditu Oihaneder Etxean, ekainean.



Jean-Claude Mourlevat. P. MATSAS / EFE

Mourlevat idazleak irabazi du Lindgren literatura saria

LITERATURA • Jean-Claude Mourlevat idazle frantsesari eman diote haur literaturako Astrid Lindgren sari ospetsua, mai-tagarrien ipuinak modernizatzen egindako lan bereziarengatik. 30 liburu baino gehiagoren egilea da Mourlevat, eta hogeita hiru itzultza-tara zituzte haren lanak.

Gipuzkoako 25 liburu dendaren kanpaina berezia

LIBURUAK • Liburu Eguna kari Donostian egin ohi den liburu azoka bertan behera geratu da. Hortaz, irakurketa sustatzeko kanpaina bat abiatu zuen atzo Liburu Saltzaileen Gipuzkoako Gremioak. Apirilaren 12 arte erositako liburuak %5 merkeago salduko dituzte 25 dendatan.

Bizkaiko kultur sistemaren mapa egin asmo dute

KULTURGINTZA • Bizkaiko Foru Aldundiak herrialdeko kultura eta sorkuntzaren argazki bat edo ekosistemaren mapa bat egiteko asmoa du datoen hilabeteetan, pandemiaren kalteez oharturik. «Politika egokien definizioa hobetu nahi dugu», adierazi du Lorea Bilbao diputatuak.